

## ELIZA TA BIOLENTZIA



Peguy famatuak «ordena» dalakoaren gogorkeria, desordena-koarena baiño bildurgarriagoa ta txarragoa dala esan ohi zuen.

Biolentzia zera da, alegia, gizon bati edo gizarte bati, zuzenbidearen, borondatearen, arrazoiaren, moralaren ta eskubidearen bitartez eskatu beharko litzaiokena, bortxaz, gogorkeriz, bildurraren ta gezurraren bitartez bertatik ateratzea. Pertsona bat edo komunitate bat gauzatzat edo animalizat erabili eta hartaz baliatzea da biolentzia.

Gure gizartetan biolentzirik handiena ta astunena, herriari goitik behera egiten zaiona izan ohi da gehienetan. Alegia, zuzengabeko legeak, estrutura okerrak eta ahal-gehiegikeriak eragiten diotena. Opresioa eta bildur-araztea edo intimidazioa, esate baterako, izugarrizko gogorkeriak dira, berauek ixurritako odola askotan ikusten ez bada ere. Kaleetako biolentzia ez da txarrena, baizik politika ta sozial egiturak jende apal ta pobreaki, edo menpeko arrazari, egiten dietena.

Hau ikusi, ez da garbi ikusten, edo hobe esateko, askok ez dute ikusi nahi. Menpekoek egindako gogorkeria besterik ez dute ikusi nahi.

Elizak gogortasun guztiak batean salatzea, gizarte bakoitzean gogorkeri nagusia nundik datorren azaldu gabe, askatze erreza, areago errezegia, dirudi. Jokaera honek «status quo» dalakoaren alde jotzen du, pobreak eta mirabeak ahaldunen eskuetan jartzen ditu-ta.

Elizak gizonaren errealitatea ezagutzen du. Horregatik gogortasuna bidez igundu arren, ateak ez dizkio ixten biolentziari. Guztiok dakigunez, kristau-moralistak guda zuzena ta matxinada zuzena haintzat artzen dituzte, baita gogorrezko bide hauek noiz ta nola erabili behar diran esan ere.

Ez da egia, beraz, Elizak beti ta nunai gogortasuna kondenatzen duanik.

Hortaz oso jakinduri handia erakusten du, gogorkeri batetik iges egiten saiatzean, beste biolentzi handiago batean erori ditekeelako. Zazpi begiekin ibilli behar da, izan ere, sail hontan; gauza bakoitzari bere egiazko izena ezarri behar zaio.

Bestela, ahaldunak Elizaren hitzetaz baliatuko dira beren azpiko lana egiteko. «Zuek, menpekuok, gelditu zaitezte, Elizak biolentzi guztiak gaiztoak direla diolako».

K. S.